

Herri indigenen eskubideen adierazpena egin nahi du NBEk

Munduan parte hartzea ziurtatzeko xedea du egitasmoak

Europa Press / Madril


Herri indigenen eskubideen adierazpena egiteko asmoa du Nazio Batuen Erakundeko idazkari orokor Kofi Annanek. Herri Indigenen Eguna ospatu zen atzo eta

gogoeta bikoitza egiteko beharra azpimarratu zuen Annanek: batetik, gainerako herriei egiten dieten ekarpenaz eta, bestetik, haien arazoez. Ezberdin izateko eskubidea praktikan jartzeko oztopoak salatu zituen Watu elkarte indigenak.

HERRI indigenen aldeko ekintza nazional eta internazionalari mesede egiteko asmoz egin nahi du Annanek eskubideen adierazpena. Herri indigenentzako batzorde iraunkor bat ere egin nahi du NBERen sistema barruan, indigenek munduan parte hartzen dutela ziurtatzeko.

Herri Indigenen Eguna ospatu zen atzo mundu osoan, eta gogoetaren beharra azpimarratu zuen NBEko idazkari orokorrak. Gainerako herriei egiten dieten ekarpenaz eta dauzkaten arazoez pentsatzeko deia egin zuen.

«Musika, arte, hizkuntza eta bizimoduaren bitartez gure bizitza aberasten dute», adierazi zuen Annanek. Gobernuak animatu zituen indigenen bizimoduaz ikastera, batez ere ingurugiroari dioten errespetuaz, garapen jasagarria proposatzen lehenak izan baitziren indigenak.



DOUGLAS ENGLE / AP

Brasilgo guarani tribuko kide bat.

Oztopoak

Nahiz azken urteetan ordezkari politikoak areagotu den, ezberdin izateko eskubideak praktikan jartzean oztopoak aurkitzen dituztela salatu zuen Watu Elkarte indigenak. Abusu ugari egiten dira indigenen aurka, Waturen arabera, besteak beste: erailketa bereizi gabe-

ak, lurrak indarrez hartzea, bazterketa kulturala eta erakunde onarpenik eza. Horren aurrean, herri indigenak onartzea, lurren jabe izateko eskubidea, baliabide naturalen kontrola eta autonomia eskubidea aldarrikatu zituen Watuk.

Gaur egun, 300 milioi lagunek osatzen dute herri indigena. 5.000 kultura ezberdi-

netakoak dira, eta bost kontinenteetan banatuta bizi dira.

Herri Indigenen Eguna 1995ean ospatu zen lehen aldiz, NBERen ekimenez. Urte horretatik 2004rako tartea Herri Indigenen Nazioarteko Hamarkada izendatu zuten. Helburua da nazioarteko elkarkidetzaz indartzea, herri indigenen arazoak konpontzeko.

Askatasun mugatua dute Ubegun eta Alberdik

Kenyan atxilotu zituzten euskal urpekariak ezin dira Nairobi tik irten

Efe / Donostia

BALDINTZAPEKO askatasun mugatua dute Kenyan atxilotu zituzten urpekariak, Ubegun eta Alberdik, Informazio Diplomatorako Bulegoak atzo jakinarazi zuenez. Beste ahozko bista baten eta epaiketaren data jakitearen zain daude.

Uztailaren 30ean atxilotu zituzten Nairobi ko aireportuan, eta marihuana izatea leporatu zieten. Oraindik ez dakite droga jabetza edo tra-

fikoa bizkarreratuko dieten, baina «atxilotzeko moduak ez dirudi narkotrafiko kasu batekoa», Informazio Diplomatorako Bulegoaren arabera.

«Bizkarreratzen dizkieten karguetan dago gako», diplomazia bulegoak zioenez. «Izan ere, Kenyan ez dago ia ezberdintasunik zer den jabetza eta zer trafikoa erabakitzerakoan». Droga jabetza leporatuko baliete, diru isuna ordaindu eta hamar urte bitarteko espetxe zigorra bete

beharko lukete. Trafikoa leporatuz gero, ordeza, bizi osorako espetxe zigorra jaso lezakete.

Prozesuaren iraupena zenbatekoa izango den iragartzerik ez dagoela adierazi zuen diplomazia bulegoak, era horretako prozesu penalei buruzko ziurgabetasuna erabatekoa dela eta.

Ubegun eta Alberdiren gurasoak aurreko asteartean abiatu ziren Kenyara. Ostegunean, berriz, ahazko lehen bista izan zuten.

laburrean

■ Euskara irakasle izateko iraileko ikastaroen edukiak eraberritu ditu Nafarroako AEK-k

AURTEN ere Nafarroako AEK-k ehun orduko glotodidaktika ikastaroa antolatu du irailerako, euskara irakasle izan nahi dutenei gutxieneko prestakuntza eskaintzeko asmoz. Oraingoan, ordeza, berritasun nabarmen batekin dator, ikastaroak euskalduntze prozesuaren helburu komunikatiboen sailkapen berria izanen baitu ardatz. Azkeneko ikasturteetan AEKren didaktika talde bat buru-belarri aritu da helburu berrien lanketan, talde pilotutan bilduriko emaitzak konparatzen eta osatzen, material berria sortzen eta AEK-ko bertako irakasleak birziklatzen. Ikastaroen eduki berriak ezagutu nahi dituenak, bestalde, AEKren egoitzan izanen du informazio zabalagoa, eta abuztuaren 27a arte du izena emateko epea.

■ Gernika-Lumo inguruko 'Aldaba' aldizkariak ehun zenbaki bete ditu

GAUR bertan kaleratu da Aldaba herri aldizkariaren ehungarren zenbakia. Gernika-Lumoren inguruko informazioa eskaintzen duen agerkari honek hamasei urte daramatza kalean. Denbora tarte horretan 8.000 orrialde baino gehiago argitaratu dituzte Aldaba-koek. Bihilabetero agertzen da kioskoetan aldizkari honen zenbaki berria. Gaurtik aurrera, ehungarren zenbaki berezi honetan, Manuel Leginetxe edo Segundo Oar-Artetaren testuak irakurtzeko aukera izango du erosleak.

■ Igandean Iruñean jaso zuten belatzari behar bezalako zaintzarik ez diotela eman salatu du Gurelurrek

GURELUR talde ekologistak salatu duenez, Iruñeko Golem zinemen ondoan igandean jaso zuten belatzari jaramonik batere ez diete egin. Antonio Munilla taldeko bozeramailearen arabera, Ingurugiro teknikariak hegaztia jaso eta Nafarroako Gobernuaren etxalde batera eraman zuten eta han utzi, nahiz eta nutrizio faltagatik belatza «premiatzen artatzea» behar-beharrezkoa zen. Munillak maiz zaindu izan ditu belatzak, eta bere esperientzian oinarrituta azpimarratu zuen atzo, zaintza egokirik eman ez diotenez, animalia nekez indarberritu ahal izango dela. Nafarroako Gobernutik, baina, ukatu egin zituzten atzo bertan Gurelurreko ekologistek egindako salaketak. Jose Torres Ingurugiro zuzendariak atzo azaldu zuen Ilundaingo animalien errehabilitazio zentruan dagoela hegaztia, eta behar duen arreta guztiaz ari direla zaintzen.

G z l z - E r N r n z k n
S r l u z k H r r u n t k G l - 27
E r r r S r l z k
E k t z k r k t u
(G k 7 - I - 3 / 1)

1 k u z t u r n 5 k G u z k k 1 z k r
f z l n , 1 z k n , r r r n u r r n
k u s r r r l G S T E I Z E I N N Z
K N S L U Z E K H E I G U N E T I K G l - 27
E E l E S T Z E K I E E G K I T Z E
K I E K T U (7 - I 3 / 1) t a h t z h r t u
h r r k n s u n t s k u k n s u n
t s k u h r a z r r n z b t z t u k -
t u r r .

a s t , 1 k u z t u r n 5 .

G u z k k E r r u l u m i
G r t E r r a g a